

Pertsonen aurpegia aldiro aldatzen da, baina dago momentu bat perfektua ematen duela, osoa. Bere itxura irabazia du, aldagaitza da. Eta egun horretan berea horrelakoa izan zen, gora begiratzeko zuen bakoitzeko. Hogeita hamar urte zituen, eta kemena ukigabea. Bere gainean altxatzen zen Walker ertza.

James Salter-Solo Face



Alpetan sortu zen gure kirola, eta horma beldurgarriak igotzearen zentzugabekeriari izena eman zion, alpinismoa.

Alpetako mendi gailur guztiak gainditu zituzten unean, XIX. mende bukaera, alpinistak erronka berrien bila, mendi zuri hauek bide zailagoetatik igotzen hasi ziren, non hormak, eta hauek gainditzeko moduak, bihurtu ziren garrantzian mendi tontorren pareko.

Denborarekin, alpinisten artean, hiru mendi gailurrek hartu zuten ospea, edo hobeto esanda, hiru mendi hauek dituzten ipar hormak; Eiger, Cervino eta Grandes Jorasses.

Hiru pareta hauen eskaladak alpetako trilogia izenez ezagutzen ziran, kirol honetan norbait izan nahi zuenak egin beharreko zituenak, gaur egun oraindik erronka dira.

Nire alpinista lehia barruan, trilogiak burutzea baino, eskalada berak erakarri izan nau, eta hiru horma hauetako batek, **Grandes Jorasses, irudikatu izan dut alpinismoaren tenplua**, alpinismoak behar dituen osagarri guztiak dituelako; lau mila metrotako gailur bat, ikaragarritzko ipar pareta iluna, kilometro pasa altuera duen horma, Mont Blanc mendiaren itzala, horma ikusteko bertara joan beharra dago.



1999ko udazkenean, nire lagun **Alfonso Vizanekin** batera; Alfonso alpinista aski ezaguna zen estatu mailan, puntako alpinismoa egiten zuen, Madrilen bizi zen, Grandes Jorasses eskalatzeko asmoa genuen.

Grandes Jorasses erronka honen aurretik, Alfonsorekin, pare bat alditan soilik lotu nintzan soka berdiñera; 1999. urteko neguan lehena, Nepalgo Himalayan dagoen Kusun Kanguru mendiaren ipar horma igo genuen hiruko sokadan. Urte bat geroago, 2000. urteko abuztuan, Pakistango karakorum mendietan, Unza peak ipar pareta eskalatzeko, istripu tamalgarri bat izan genuen, eta bertan zendu zen nire laguna.

Aipatzen ari nintzan udazken eze horretan, Alfonso eta biok, Chamonixera gerturatu giñan alpinismoa egiteko gosez. Azaroa Alpeetan eskalada egiteko ez oiko garaia zen orduan, Chamonix turistikoa hutsik egoten zen ere.



Eskalada hau burutu genuenetik soilik hogeit hamar urte pasatu diren arren, teknologia mailan mende bat pasatu dela dirudi. Garai horietan ez zegoen internet eta gutxiago gaur egun eskura ditugun mendi baldintzei buruzko informazio pila. Eguraldi iragarpena, justu, Chamonixeko turismo bulegoan lortzen genuen, eta agian norbait bere eskalada buruzko informazioa zabaltzea gustuko izan balu, bulego horretan zegoen eskalada liburuan idatzia utziko zuen, azaro gris eta triste horretan ez zuen inork ezer idatzia utzi.

Alfonsok 33 urte zituen bidai hau egin genuenean, eta seme bat, Olmo. Filosofian lizentziaduna egon arren suhiltzaile zuen ogibidea.

Alfonsok Walker bidea egina zuen udako baldintzetan, oraingoan berriz neguko eskalada bati egingo genion aurre, bere ezaguerak baliagarri izango genituen.

Eskalada estrategia aldetik bakoitzak bere tokea jarri nahi zuen; Alfonso alpinismo arinaren babestzaile sutsua zen, non-stop estiloaren bultzatzailea, berak motxila gauza beharrezkoetatik benetan beharrezkoetara mugatzen zuen, berarentzat lo zakua eramatea pisu alferrikakoa zen.

Nire ekarpena berriz etika aldekoa izan zen, paretara hurbiltzeko tren edo teleferikorik ez hartzea adibidez. Puntu honetan sakon eztabaidatu genuen, zeren, nahi izanez gero, Grandes Jorasses ipar horma azpi-arte helikopteroz igotzeko gonbidapena geneukan; al filo de lo imposible telebista saiokoak Mont Blanc inguruan zebiltzan grabaketa batean, Alfonsok saioan parte artzen ari ziran mendizale batzuk ongi ezagutzen zituen, eta hauek egin zioten eskaintza. Ezezkoa esan genien. Gure gogoeta eta eskalada planteamendua hain zorrotza izan zen, telefono mugikorrek ere ez igotzea erabaki genuela, batuk pisuarengatik, eta teknologiak abentura zapuztu egiten zuela argudioaz bestek.



Beraz, osagarri guzti horiekin, azaroko egun gris batean, Chamonix herri bertatik atera giñan Grandes Jorasses ipar paretan Macintyre-Colton bidea eskalatzeko asmotan.

Estatuko Espainiarreko alpinismoa, eta Macintyre-Colton bideari buruzko historia eginez, esan behar dut, urte pare bat lehenago Kataluniar sokada bat sartu zela horma honetan bide hau egiteko asmoz, lehenak ziran saiatzen. Mila gora-bera ondoren, azkenean, gailurra zapaltzea lortu zuten, baina ez Macintyre-Colton bide originaletik, konbinazio arraro bat egin zuten hiru bide desberdin hartuz, guk ingelesez bidea osorik eskalatu nahi genuen, eta baita lortu ere.

Lechaux burdinazko aterpe jelatuaren manta guztiak gainean botata ere ez nuen aski gorputzeko hotza kentzeko, ondoeza ez nuen soilik dena izoztua zegoelako, altuerak zerikusi handia du gorputzaren egoeraz, baina hein handi batean nire ezin egona hurrengo eguneko erronkagatik zen.



Goizeko lauretan martxan giñan, kranpoiak jantzita Lechaux glaziarretik gora gindoazen, Grandes Jorasses ez zen ikusten gauaren iluntasunean, baina bere presentzia sumatzen nuen.

Hormaren azpira iritsi ginenean, konplikazio gutxirekin, eguna argitzen hasia zen. Gogoratzen dut, burua altxatuta, urruneko gailurra kontenplatu, ohartu nintzela iparrizarra bertan zegoela argitsu, justu gure bidea bukatzen zen puntaren gainean,

Walker gailurraren gainean. Bidea markatzen ari zen, norabide egokian gindoazela adieraziz, lasaitu nintzan.

Pareta ez zegoen izotz aldetik oparo, lehor xamarra zegoela esango nuke, seguru igotzeko lasai hartu beharra zegoen.

Hasierako pala handiaren ondoren, lehen erresaltea pasatzerakoan, pioletak izotzean iltatzeko gela geruza justua topatu genuen. Ezta hori ere segidan etorri zitzaigun bigarren erresaltean, erabat lehor zegoen hau. Al genuen moduan, erdi eskalada mistoan, pioletak eta kranpoiak harrian erantsiz, erdi eskalada artifizialean, kokatzen genituen seguruetatik zintzilikatuz, pasatzea lortu genuen.



Azken pareta zatia eskalatzen egin zitzaigun gaua, irteerako horma tentea gainditzen ari ginela. Linterna frontalak atera genituen eta eskalatzen segitu genuen. Bilera muntatua geneukan artesi estu batean, eseri eta atsedena hartzea erabaki genuen, sukaldatzeko gailuz elurra urtu eta likido bero pizgarri batek gorputza tenplatzea lortu zuen, artesi horretan, ohartu gabe, eguna argitu zitzaigun.

Bi eskalada luzeetan, hiru gehienez, Grandes Jorasses mendia osatzen duten bost gailurretatik altuena, Walker punta, zapaltzera iritsi ginen.

Ez genuen denbora asko galdu gailurrean, argazki batzuk atera eta berehala ekin genion jaitsiera nahasiari. Garaiz genbiltzan, aski argi genuen Courmayeur herrira iristeko. Baikorregiak ginen, azkenean hanka-sartze baten erruz, Alfonsok ez zuen ongi gogoratzen bidea, gau itxian, Boccalatte aterpera iristea lortu genuen. Ezer ez genuen ahora eramateko, gau dohakabe bat izan zen, baina behintzat seguru ginen.



Hamar urte zaharrago, berriro nago Lechaux aterpearen atarian, Grandes Jorasses dut aurrean, Chemarirekin etorri naiz oraingo honetan.

José María de Andrés "Chemari", Madrildarra da, eta suhiltzailea ere. Alfonsok aurkeztu zidan Chemari, batera geunden Unza peakeko espedizio tamalgarrian. Geroztik lagun minak gara, asko eskalatu dugu elkarrekin.

Asmo handiko helburuaz gindoazen Grandes Jorasses ipar hormara, **Slavko Sveticic** esloveniarrak bakarka zabaldu zuen Manitua bidea errepika nahi genuen.



Ekaina eguzkitsua zen, Lechaux aterpeak beste itxura bat azaltzen zuen, ez zen hamar urte lehenagoko leku hotz eta isolatua. Aterpe arduraduna bertan zegoen, bai eta mendizale batzuk ere. Oroitzapena dut gau horretan ongi lo egin nuela, ez nituen hotzikararik pairatu, agian lo zaku arinak gurekin genituelako?

Zalantzak ez dira lagun onak, Manitua bideak horma tentea heltzen duen puntuan, leku horretaraino Manitua eta Croz bideak partekatzen dituzte metro asko, eztabaidatzen hasi ginen, ez genuela eskalada material nahikorik iritzi zion Chemarik, bi joko friend eta iltze batzuk generamatzan soilik. Ez zen eztabaidarako lekua, Croz bidetik segitu genuen gora.




Hasierako elur maldak, eta kanala, kranpoiak egin genituen, ondoren, katu-oinak jantzi eta arroka garbian eskalatzen segitu, bidearen azken zatian, elurtuta zeuden irteera kanaletan, jantzi behar izan genituen berriro kranpoiak.

Baina hau eskaladaren bigarren egunean izan zen, zeren paretaren bi erenak eskalatuak genituela gaua egin zitzaigun, eta bibaka inprobisatu batean itxaron genion egunsentiarri.



Kosta zitzaigun bigarren egunean paretari metroak irabaztea, nekea nabaria zen, eta elur baldintzak eskasak. Gailurrean beste bibaka bat egin genuen, nahiz eta egun argiz ongi iritsi Croz puntara, nekatuak geunden eta disfrutatu nahi genuen hain leku apartaz.



Grandes Jorasses eskalatu nuen hirugarren aldian azaroa zen ere, pioletez eta kranpoiaz igo genuen punta Whympfer, No Siesta bidea. **Kepa Escribanorekin** nindoan, 2011. urtea zen.

Kepa Bilbotarra da, lagun mina dut aspalditik. Langile autonomoa, mila lanbide izan ditu, Wall Street basatian ez zen galduko Kepa. Eskalada oso onak eginak ditugu elkarrekin, batez ere neguan eta Pirinioetan.

No siesta bidea eskalatzeko ideia Keparena izan zen, Kepak egin zidan sorpresazko telefono deiari ezin izan nion ezezkorik esan.

No Siesta mitifikatua nuen nik, nire alpinista handinahian gailurra jotzen nuen bide honekin. Alfonsoren garaitik zetorkidan bide hau eskalatzeko ilusioa, nire lagun madrildarraren desagerpenarekin amets ezin gauzatua izango zela pentsatzen hasia nintzen.



Chamonixek estresa sortzen dit. Iritsi eta berehala hasten gara gora eta behera eroak moduan, azken ukituak eman nahi dizkiegu eskaladetan beharko ditugun gauzei. Nekatu egiten nau.

Azaroa zen, urte sasoi honetan oporrak hartzen dituzte bailaran bizi diren gehienek, beraz, denda asko itxiak zeuden. Montenverseko trenaren konpontzen ari ziran. Dena zegoen hankaz gora.

Kepa eta biok, lan handiz, ados ginen paretara zer igo eta zer utziko genuen auzian,

baina eskalada estrategia puntu batzuetan eztabaidatu genuen. Adibidez; petatearen gaiak ni ez ninduen konbentzitzen. Ez zitzaidan logikoa iruditzen pareta tramu txiki bategatik petatearen deserosotasuna bidai osoan sufritu beharra. Ala ere prest azaldu nintzen nire petate txikia motxilan sartu eta behar zenean ateratzeko, baina logikaz aukera hau ez zen ona ere, beraz, azkenean motxilekin joan ginen, nirea petate moduan erabiltzeko hitzarekin. Janari kontua ez genuen urri hartu, Lechauxera behintzat mordoa generaman.



Lasai gindoazen glaziarretik gora, frontalen argiek laguntzez gintuzten paretarako bidea bilatzen. Pittin bat harritua nindoan, normalean urduritasuna eta ezin egona sortzen dizkit lehen momentu hauek, egun horretan lasai nengoan, aterpean egon ginen ordu gutxi horietan ere lo egin nuen.

Gaua zen oraindik pareta azpira iritsi ginenean. Gasezko sukalde txikia atera genuen eta te bat prestatzen itxaron genion egunsentiari.



Izotzaren kalitatea lehen partean ez zen oso egokia. Konkrétuki luze bat tokatu zitzaigun barrukoak mugitu zizkigunak. M7 erresaltearen aurreko tiradaz ari naiz. Oreka hutsa izan zen luze osoa; plaka etzan batean gindoazen, haitzean erantsitako izotz "karkasa" ziztrin batzuetan pioletak kokatu nahian. Seguruak urrun eta exkaxak

ziren, erorketa ez zen posible, nerbioak ezin dominatu genbiltzan, itzela izan zen.



Konturatzerako eguna joan zitzaigun, ez ginen gaua pasatzeko pentsatua geneukan lekura iristeko gai izan. Nekatuak geunden, eta erpin txiki batean bibaka egitea adostu genuen. Oso desatsegina geratu zen bibaka, ez genituen lo zakura sartzeko mendiko botak kendu egin ere. Eserita itxaron genion egunsentiari.

Goizen-goiz berriro ginen martxan. Zailtasun teknikoak handitzen zihoazen, baina zortez, izotzaren kalitatea hobetzen. Azkarrago eta seguruago mugitzen ginen. Oraindik egun argiz haitz pareta tentearen azpira iristea lortu genuen. Denbora genuenez bi luze ekipatuak utzi genituen eta bibaka egitera izotz maldetara jaitsi ginen. Gau hau ere oso deserosoa suertatu zitzaigun.



Erdi eskalada askean, erdi eskalada artifizialean, metroak nahiko erraz irabazi genizkion pareta tenteari. Gogotsu gindoazen eskalatzen. Egun horretan nahi genuen paretatik atera.